

Julio Iglesias

aske



ETAren aurkako jarrerari eusteko eskatu dute alderdi politikoei

Beren poza azaldu dute Julio Iglesias ingeniariaren askatasunagatik

Alderdi politiko guztiek beren poza azaldu dute Julio Iglesias Zamoraren askatasunaren berri izan ondoren. Bahitzaileak atxilotu ez dituztelako kezka azaldu dute batzuk, eta guztiek nabarmendu dute bahiketa honen kontra gizartean egon diren erreakzioak. ETAren kontrako adierazpenei eusteko eskatu zuten alderdiek.

DONOSTIA

Julio Iglesias ingeniariaren askatasunaren ondorengo balorazioak egin zituzten atzo Eusko Jaurlaritzako, Espainiako Barne Ministerioko eta alderdi politiko guztietako ordezkariak.

ARDANZA: EAEko lehendakariak zuzenean hitz egin zuen Julio Iglesiasekin, ikusiko ingeniaria zoriontzeko eta, aldi berean, bere askatzeak sortutako poza adierazteko. Ardanza harrituta agertu zen, hainbeste egunetan bahitua egon arren Iglesiasen lanean segitzeko nahi sendoa azaldu baitzion. Bestalde, bahiketak eragindako gizarte erantzunaren garrantzia azpimarratu zuen eta gertatutakoa ETArentzat ikasgai baliagarria izan dadin espero duela gehitu zuen.

ATUTXA: Eusko Jaurlaritzako Barne sailburua ere pozik agertu zen Iglesiasen askatzearen berri izatean. Halaber, bahiketak eragindako herri mobilizazioek aurrerantzean horrelako gertaerak eragotzi beharko lituzketela esan zuen. Atutxaren esanetan, «bakea ETAren eta bere ekintzak txalotzen dituztenen esku dago» eta «ETAk herriaren nahia aintzat hartu, gogoeta egin eta indarkeriaren bidea utzi egin behar du».

ARZALLUZ: Poza sentitzen duela alde batetik, eta lasaitasuna bestetik, adierazi zuten Xabier Arzalluzek Julio Iglesiasen askatasunaren berri izan ondoren, «bere aske uztearen atzerapena Goardia Zibilaren kontrolen ondorio zela pentsatu zelako». Ba-



Iglesiasen askatasuna eskatuz joan den irailean Donostian egin zen manifestaldia.

A.GILLENEA

hiketaren kontrako gizartearen erantzuna bestalde ETAren aurkako kolpea izan dela esan zuen, «kontu handiz neurtzen dutelako herria beren kontra jartzea».

ANASAGASTI: Iñaki Anasagasti pozik azaldu bazen ere, beharrezkotzat jo zuen «gizarteak terrorismoaren kontra hartu duen energiari eustea». EAJko diputatuaren ustez, «bahiketa honek bi epe izan ditu, aurrekoa eta ondorengoa, euskal gizartean indarkeriaren aurkako iritzia suspertzeko balio izan duelako».

JAUREGI: «Bahiketa hau egin izanaz damutuko direla espero dut» esan zuen PSE-EEko idazkari nagusiak. Poliziak ez duela lortu Iglesias askatzea gogoratu zuen Jauregik, «ez du denok espero genuen arrakasta izan baina lan ezinhobea egin du eta gizarte osoak eskertu behar du». Pozik azaldu zen, «gizon honek eta bere familiak hainbeste denboran jasan duten tortura amaitu delako». Gizartearen erreakzioa «negatiboa» izango dela ETArentzat esan zuen. PSNk prentsa agiri batean azaldu zuenez berriz, «beharrezkoa da gizarteak eskubide demokratikoen aldeko borrokari eustea».

GARAIKOETXEA: «Izugarritz-

ko poza sentitzen dugu Iglesiasen askatasunagatik, baina gogoratu egin behar ditugu indarkeriaren ondorioz bidean gelditu diren guztiak. Sufrimendu eta sumin hori ikusita gatazka latz honekin amaitzeko konpromezua berretsi behar dugu, eta gure gizartean behin-betiko bakea eta adiski-

detasuna lortzen jardun».

OLIVERI: «Indarkeriaren aurkako gizartearen jarrerari itzuliezineko urratsa izan da Julio Iglesiasen bahiketa» esan zuen EAJko idazkari nagusiak. «Gizartearen gaitzespenak jarraitu egingo du ETAk indarkeria erabiltzen jarraitzen badu. Iglesia-

sek, nahi gabe, lagundu egin du mobilizazio hori, eta hori atzerapauso handia da ETArentzat» esan zuen.

GURRUTXAGA: «Julioren askatasuna eta biolentziaren desagerteta eskatzeko egindako mobilizazioen ostean, euskal herriarrok duela lau hilabete baino libreagoak gara. Ez dakigu ETAk zerbait irabaziko ote zuen, baina galdu izan zezakeen begirune gutxia galdu du. Eta askatasunak asko irabazi du. Oraindik, lasaitasunez baina etenik gabe, jarraitu egin behar da nahi dugun bakea eta askatasuna lortu artean».

MAYOR OREJA: «Euskal herriarrek ikasi dute biolentziaren amaieraren protagonistak beraien direla, eta horretarako kalera atera behar dutela. Azken batean, egun hauetan gertatu dena. Hau ETArentzat azken urteotako porrot politiko eta sozialik handiena izan da».

MOSQUERA: Iglesiasen askatasuna «biolentziaren aurrean, hiritar demokratikoen jarreraren etapa historiko baten garaipena izan da». Hori dela eta, «kalean nahiz etxean beraien bake nahia eta ETAren biolentzia arbuiatzen jarrai dezaten» eskatu du.

ESPAINIAKO ERREGA: Espainiako Errege-Erreginak telegrama bat igorri zioten atzo Julio Iglesiasi. «Zure pozarekin eta zure familiarenarekin bat egiten dugu, etorkizun ona izan dezazula desiatuz» dio.

CONFEBASK: «Ez dugu utziko gutxiengo ero batek Euskadiren etorkizuna bideratu dezan» azaldu zuen, eta bahiketa Euskal Herriaren «interes ekonomikoaren aurkakoa» izan dela.

Pasaiako XII. Umorezko Antzerki Jardunaldien Egitaraua

ANTOLATZAILEAK



Pasaiako
Udala

Pasaiako
Antzerki Tailerra

BABESLEAK



Pasaiako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



kutxa fundazioa
fundación kutxa

URRIAK 31, IGANDEA

TALDEA: CHAPERTONS (Katalunia)

OBRA: "Boom!"

NON: Trintxerpeko Pilotalekua
Arratseko 8etan

AZAROAK 1, ASTELEHENA

TALDEA: COMPANYA DE TEATRE
(Katalunia)

OBRA: "Pequeños cuentos
misóginos"

NON: Trintxerpeko Pilotalekua
Arratseko 8etan



ORIOKO HERRI IKASTOLA

2 edo 3 hilabeteko ordezkapena egiteko,
O.H.O.ko irakaslea behar dugu.

Ezinbesteko baldintzak: EGA eta Magisteritza

Interesatuok ekar kurrikuluma ikastolara azaroaren 10a baino lehen

HERRI IKASTOLA: Abeslari kalea, z/g. ORIO. 834704 tel.